



Urte bereziari errepassoa

Santa Ana parodiak 70 urte bete ditu; COVID-19ak eragindako egoerara moldatutako ikuskizuna eskaini dute aktoreek / 8-9

Haurdunaldiak, itxita

Konfinamendu garaiko emagin lanen, haurdunaldi eta erditzeen inguruan hizketan / 6-7

COVID-19aren baitako neurri berriak: EAEko taberneak 01:30ean itxi beharko dute beranduenez gauean / 2

Jon Pello Artetxek Zikuñaga Papelera txapelketa irabazi du senior mailan, eskuz binaka / 10

UDAKO TXOKOAK
POLTSA SALGAI
3€

Jalgi kafe antzokia **TABERNAN SALGAI**

2car
Zumaburu kalea 18
20160 Lasarte-Oria
Tel: 943 36 24 63

Zure konfiantzazko tailerra, segurtasun berme guztiekin



Eusko Jaurlaritzako Osasun sailburu Nekane Murgak eman du neurrien berri asteen. EITB

Tabernek 01:30ean itxi beharko dute EAEn

COVID-19aren berragertzeak apaltze aldera, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak neurri gehiago iragarri ditu: ostalaritza establezimenduei eta ekitaldi jendetsuei eragiten diete, batik bat, eta gaueko aisialdiko ordutegiei. Indarrean daude honezkero

Txintxarri

Eusko Jaurlaritzak COVID-19aren berragertzea geratzeko neurri berriak hartzea erabaki du. Ostalariei eragiten diete askok: 01:30ean itxi beharko dute beranduenez Araba, Bizkai eta Gipuzkoako tabernek. EHAAn argitaratuta, indarrean daude neurri horiek honezkero. Ekitaldi jendetsuei ere eragingo diete neurri horiek, edukiera maximoa murriztu egingo baita.

Nekane Murga Osasun sailburuak eman du neurrien berri asteen, prentsaurreko batean. Jaurlaritzak erabaki du neurri murriztaile gehiago hartzea, SarS-CoV-2 birusaren berragertzea geratzen saiatzeko. Tabernek, adibidez, 01:30ean itxi beharko dute EAeko hiru lurraldeetan, eta ezingo dute goizeko seiak baino lehenago ireki.

Gaueko aisialdiari lotutako neurri gehiago: diskoteken edukiera maximoa %60ra murriztuko du Jaurlaritzak eta dantza egiteko eremua ezingo da

erabili, ez baldin bada mahaietan eserita daudelako bezeroak. Horrez gain, derrigorrezkoa izango da mahaietan eserita kontsumitzea gauerdetik aurrera, barrukoetan zein terrazan. Jatetxei dagokienez, ehun pertsona baino gehiagorentzako tokia daukatenez ezingo dute bezeroen %80 baino gehiago eduki zerbitzu berean. Bestela esanda, ehun pertsonari zerbitzua eskaini ahal dion negozio batek ezingo ditu 80 baino gehiago hartu aldi berean.

Beilatoki eta hiletak egiteko moduan ere aldaketak egongo dira. Beilatokien kasuan ezingo dira 60 pertsona baino gehiago elkartu, edukieraren %60 gaintzen ez bada, eta berdin hiletekin. Kontzertu, erromeria

**UZTAILAREN 25EAN
ERREGISTRATU DUTE
AZKEN KASU
POSITIBOA LASARTE-
ORIAN, LARUNBATEZ**

eta antzeko ekitaldien kasuan, ikus-entzuleek aurrez ezarritako eserlekurik ez badute, ezingo dira egin.

Koronabirusaren datuak

Aldizkari hau inprentara bidaltzerakoan uztailearen 28ko datu eguneratuak zeuzkan TXINTXARRI-k eskuetan, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak emandakoak. Horien arabera, EAEn 123 kasu positibo gehiago erregistratu dituzte, horietatik 46 Gipuzkoan; 4.489 PCR proba egin dituzte hiru lurraldeetan. Lau pertsona daude ZIU unitateetan ospitaleratuta eta beste zazpi ingresatu dituzte plantan. R0 tasa 1,06koa da.

Beterri-Buruntza eskualdean ez dute kasu berririk detektatu uztailearen 28an. Hilabete honetan, guztira, hiru kutsatze gehiago erregistratu dira Lasarte-Orian; azkena, hilaren 25ean, larunbatarekin. Aste honetan, oraingoz behintzat, bakar bat gehiago ere ez.

"Tabakoaren kontsumoa arrisku faktore erantsia da"

Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak gutun bat bidali dio udalari, leku irekietan erretzeari buruzko gomendioekin

Txintxarri

Gaur egun indarrean dagoen legeak aire zabaleko espazioetan erretzea ahalbidetzen duen arren, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak adierazi du "arrisku faktore erantsia" dela tabakoa kontsumitzea. Lasarte-Oriako Udalari gutun bat bidalio dio, leku irekietan erretzeari buruzko gomendioekin.

"OMEk ohartarazi du erretzaileek arrisku handiagoa dutela sintoma larriak garatzeko eta COVID-19aren birusak jota hiltzeko; ebidentzia zientifikoak daude", nabarmendu du Osasun Sailak gutunean. "Batez ere birikei eragiten dien gaixotasun infekzioso bat da".

Baimenduta egon arren, SEPAR Espainiako Neumologia eta Toraxeko Kirurgia Elkarteak gomendatzen du terrazetan eta espazio publikoetan ez erretzea, "koronabirusa transmititzeko arrisku gehigarria" delako, "erretzaileentzat eta inguruan dauden pertsonentzat".

Ondoko arrazoi hauek aipatzen ditu SEPAR elkarteak, aire zabalean dauden espazioetan

eta terrazetan ez erretzea gomendatzeko. Lehenik eta behin, zehaztu du zigarreta, lurrungailu eta beste tresna batzuk erabiltzean arnas tanta txikiak uzten dituela keak. "Birus karga izan dezakete eta oso kutsakorrek dira".

Bigarrenik, "ezinbestekoa" da eskua aho, sudur edo aurpegira eramatea erretzerakoan. "Horrek erraztu egiten du birusa arnas- aparatuan sartzea", jakinarazi du SEPAREk. Hirugarrenik, aipatu du maskarak ematen duen babesak eraginkortasuna galtzen duela "gehiegizko manipulazioagatik", tabakoa kontsumitzerakoan musukoa behin eta berriro kendu eta jarri egin behar duelako erretzaileak.

Aipatutako guztia kontuan hartuta, Lasarte-Oriako Udalak gomendatzen du "kerik gabeko espazioak" ere irekita edukitzea. Era berean, jakinarazi du erretzea ez dela debekatuta egongo, baina herritarrei arduraz jokatzeko eskatu die, bereziki jende ugari biltzen den tokietan: aisialdiaz gozatzeko espazioetan eta ostalaritza-establezimenduetako terrazetan.

Hileta eta harrera zibilak ere egin daitezke herrian

Lasarte-Oriako Udalak ezkontza zibilak egin izan ditu orain arte, baina zeremonia zibilen araudia onartuta, harrera eta hiletak ere ospa daitezke. Udaleko Erregistro Orokorrean egin beharko dituzte eskaerak, aurrez aurre edo telematikoki. Alkatetzari zuzenduko zaizkio gero proposamen horiek. Ospatu nahi den zeremonia motaren eguna baino bi hilabete lehenago egin beharko dira tramite horiek gutxienez, hiletan kasuan izan ezik. "Ospakizun azkarra edo intimoa" egitea aukeratuz gero, berriz, eskaera bi egun lehenago egin beharko da. Onartu den araudiak zehazten ditu zeremonia mota bakoitzaren definizioak, baldintzak, ospakizun-egunak, espazioak eta nor eskatzaileen.

Arratsalde irekiko dituzte ikastetxeetako patioak udan

Lasarte-Oriako Udalak jakinarazi du uztailean eta abuztuan arratsalde zabalduko dituela herriko zenbait ikastetxetako patioak: Oriarte-Landaberri BHI eta Garaikoetxeakoak bai, irekiko ditu, baina Sasoetakoa ez, ikastetxea obretan baitago.

Uztailean eta abuztuan zehar 16:00etatik 21:00etara arte zabalduko dituzte aipatutako patio horiek, astelehenetik igandera. Ordubetez luzatu dute ordutegia, eta goizetan ixtea erabaki. *Patioak irekita* egitasmoa aurkeztu zuen udalak martxo hasieran, COVID-19aren pandemiagatik Lasarte-Oria ere Alarma Egoeran eta konfinamenduan sartu aurretik. Programaren helburua da herriko ikastetxeetako patioak lasarte-orientarren eskura jartzea.



Uztail hasieran aurkeztu zuten prozesua Partehartzet zinegotzi Nagore Duran eta herriko alkate Agustín Valdiviák. TXINTXARRI

Urriaren 31ra arte aurkez daitezke alegazioak

HAPO Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren aurrerapenaren inguruko iradokizunak eta proposamenak egiteko epea abuztuaren 1ean hasiko da, larunbatez. Udal Erregistroan sartu behar dituzte eskaerak herritarrek; telematikoki ere egin dezakete, identifikazioa aurkeztuta

Txintxarri

HAPO Hiri Antolamendurako Plan Orokorrari hiru hilabetez jarri ahalko zaizkio alegazioak: abuztuaren 1etik urriaren 31ra. Udal Erregistroan edo telematikoki aurkeztu beharko dituzte herritarrek iradokizun eta proposamenak, norberaren identifikazio pertsonala zehaztuta.

HAPO planaren inguruko dokumentuak bere web orrialdean eskegi ditu Lasarte-Oriako Udalak, lotura honetan: <http://www.lasarte-oria.eus/eu/-/hiri-antolamendurako-plan-orokorra>.

Prozesuak bost fase ditu eta hainbat hilabete iraungo duela iragarri zuten udal ordezkariak uztailaren 9an, HAPOren inguruko prentsaurrekoa egin zutenean. Lasarte-oriatarrek Hiri Antolamendurako Plan Orokorra zer den ezagutzera da programaren helburuetako bat, baita Plagintzako Arau Subsidiarioak Berrikusteko eta Hiri Antolamenduko Plan O r o k o r b i h u r t z e k o proposamenaren edukia eta irismenean modu aktiboan parte hartzeko aukera ahalbidetzea.

Aurrerapen dokumentua jendaurrean jarriko dute urriaren

31ra arte, eta saio irekiak egin kultur etxean: irailaren 15ean bat eta urriaren 15ean bestea. Horrez gain, sei tailer egingo dituzte emakume, gazte eta adinekoekin, "planteamenduak kontrastatzeko". Erakusketa bat ere antolatuko dute, material grafiko eta testuak bilduko dituen, eta etxetara ere informazio laburtua biltzen duen eskuorria ere bidaliko dute. Kontsulta-prozesuan egindako ekarpen eta iradokizunak biltzen dituen txosten bat eginez amaituko dute lehen fasea. Bigarren fasean, udalbatzak HAPOren dokumentu berria onartuko du.

Bonuen kanpainen parte hartzeko azken eguna, irailak 15

Herriko merkatari, ostalari eta zerbitzu enpresak laguntzera 125.000 euro bideratuko ditu udalak

Txintxarri

COVID-19ak eragindako alarma-egoeraren ondoren, Lasarte-Oriako Udalarentzat "beharrezkoa" da udalerrian jarduera ekonomikoa sustatuko duten ekimenak abian jarri eta

bultzatzea. Bide horretan, beste zenbait ekimenen artean, Lasarte-Oriako merkataritzarako, ostalaritzarako eta zerbitzu pertsonaletarako bonuen kanpaina bat abiatuko dutela iragarri dute, eta jakitera eman

dituzte, 125.000 euro bideratuko ditu egitasmo horretara.

Bonuak kanpainara atxikitzen diren establezimenduen artean banatuko dira eta bi eratako bonuak egongo dira: 20 eurokoak (10+10) merkataritzan eta zerbitzu pertsonaletan kontsumitzeko, eta 10 eurokoak (5+5) ostalaritzan kontsumitzeko.

Kanpainen parte hartu nahi duten establezimenduek irailaren 15a baino lehen egin beharko dute eskaera, asteartearrekin, eta zenbait dokumentu ere aurkeztu beharko



NEURE KABUZ

GORKA LASA

Gure planetari, lurrari, usaina aldatu zitzaionekoa

Goizero, goizero, jaiki orduko, lanera noa... Zioen abestiak. Bada, martxotik ez noa lanera, baina bai dutxara; eta presarik gabe dutxatzeak eragin dit halako plazer berri bat, beheko belardendan erositako labanda-xaboiaren usainak sorrarazten didana; naturarekiko atxikimendu-plazera.

Gosaldu ondoren erosketak egin, eta etxeratzen naizenean ere berdin, sudurretik atzematen dudana berritasuna: gure etxeko usaina, egun osoan etxean egon ondoren gure gorputzek, mugimenduek, otorduek jariatzen duten usain berezia.

Badoaz orduak aurrera, eta alabarekin marrazkiak egiten hasi naizenean ere, to! Hor usaina berriz: nire haur-eskolako garaietara naramana: ikastolako lorategian hilda aurkitutako txoritxoa lurperatu genueneko; orduan erakutsi zigun Igorrek, batzuetan asta-potro samarra zen arren, bihotz hunkibera ere bazuela. Baina orduan ez genuen Txoria txori abestu, ez baitzen oraindik ereserki bilakatu.

Ama alarguna bisitatzera joan naizenean ere, bere balkoiko geranioei inoiz ez bezalako usaina darie; eta amaginarrebaren larrosei zer esanik ez.

Eguna amaitzeko, bat-batean, euria hasi du; ai! Bai gozoa kale bustiaren usaina; eta ondoan dudana parke-eremutik datorren baso-usain hura?

Asmatu duzue, bai: ez nau koronabirus madarikatu honek oraindik harrapatu!

Irailaren 15ean aterako da guztiz Michelin Lasarte ABEEtik

Michelin konpainiak jakinarazi duenez, bere planta guztiak, Lasartekoa barne, erabat aterako dira ABEE Aldi Baterako Erregulazio Espediente egoeratik irailaren 15ean, asteartearrekin. Fabriken jarduera ugari egoera horretan daude oraindik, eta konpainiak sindikatuei esan die orduan aterako direla ABEEtik. Gasteizko lantegiaren kasuan, langile guztiak abuztuaren 10ean

hasiko dira lanean ohiko jardueretan, astelehenez.

Michelin konpainiak bigarren ABEE bat ezarri zuen maiatzaren 15ean estatuko lantegi guztientzat, baita Lasarte eta Gasteizko lantegietakoentzat ere. Behargin bakoitzak gehienez 70 egun natural igaroko zituen egoera horretan, irailaren 15era arte hain justu. Uztailaren 9an, ostegunarekin, Michelin plantetako langile plantiletako bi heren atera zituen ABEEtik, eta erregulazio txostenak beste lau esparrutan indarrean jarraitzen du.



Herritarrek, erosketak egiten. TXINTXARRI

dituzte, kanpainen parte-egite eskaerarekin batera. Dokumentu horiek telematikoki aurkeztu ahalko dituzte www.lasarte-oria.eus webgunean edo Mirentxuko COVID-19aren bulegoan bertan, baina azken aukera horretarako ezinbestekoa izango da aurretik hitzordua hartzea 943 376 179 telefonora deituz. Informazio gehiago nahi duten lasarte-oriatar guztiek, kanpainen oinarriak eta dokumentazioa kontsultatzeko aukera daukate www.lasarte-oria.eus atarian.

Limusinan, herriko dendatan sosak xahutzera

Asteazken arratsaldean gastatu dituzte Aterpearen 'Eskuratu 1.000 euro!' kanpainako irabazleek erosketa bonuak. Zazpi saritu izan dira aurten; horietako lauk 250 euroko bonu bana irabazi dute, beste bik 500 eurokoak eta, azkenak, 1.000 eurokoa

Txintxarri

Arratsaldeko 17:00etatik iluntzeko 20:00ak arteko tartea izan dute, asteazken arratsaldean bost lasarte-oriatarrek, Aterpearen *Eskuratu 1.000 euro!* kanpainako erosketa bonuak gastatzeko. Ordu horretarako Okendon bildu dira sarituak eta Aterpeako kideak, eta zain zeukaten baita ere luxuzko auto zuria ere. Horretan sartu eta herrian barrena ibili dira, hiru orduz diruak xahutzen.

Erosketak hasi aurretik, Aterpea merkatarien elkartearen izenean, Ramon Ormazabalek hartu du hitza. Eskerrak eman dizkie kanpainan parte hartu duten lasarte-oriatar guztiei. Udalarari ere zuzendu dizkio hitz batzuk; eskertu die herriko merkataritza sustatzeko kanpaina babestu izana. Azkenik, saritutako herritarrei zuzendu da. Zoriondu egin ditu eskuratutako sariengatik, eta herriko komertzioetan erosketa

"kontzientek eta arduratsuek" egitera animatu ditu.

Nuria Fernandez Soziologia batzordeburuak hartu du hitza. Honek ere herritarrek eta Aterpeako kideei eskerrak eman dizkie, lehenei herrian kontsumitzeagatik, eta elkarteari, berriz, herriko komertzioa sustatzeko egiten duten lanagatik.

Hitzartzeak amaituta, banan-banan sarituak deitu dituzte, eta merkatarien elkarteak kideen eskutik, erosketa bonuak jaso dituzte. Sari txikienetik handienara deitu dituzte. Angeles Carabias, Yoko, Marcelina Martinez eta Cristina Notario izan dira saria jasotzen

**1.000 EUROKO BAT,
500 EUROKO BI ETA
250 EUROKO LAU
EROSKETA BONU
BANATU DIRA AURTEN**

lehenak, eta bakoitzak 250 euroko erosketa bonu bana jaso dute.

Horien ostean, 500 euroko bi bonuak banatu dituzte, eta Jose Iglesias eta Lierni Arozena izan dira sarituak. Azkenik, 1.000 euroko bonua entregatu diote Juan Jesus Criadori. Sari guztiak eskuetan zituztela, luxuzko autoan sartu dira, eta erosketei ekin diote.

Hiru orduz, komertzioz komertzio Iluntzeko 20:00ak bitarteko tartea izan dute sosa guztiak xahutzeko, eta hala egin dute. Aterpeako kide batek eta argazkilari batek lagunduta ibili dira herritik, dendaz denda, eta Okendon eman diote amaiera arratsaldeari.

Baldintza bakar bat hartu behar izan dute kontuan erosketak egiterakoan, establezimendu bakar batean 100 euro baino gehiago ez gastatzea; hortik aurrera libre.



Juan Jose Criado 1.000 euroko erosketa bonua jasotzen. TXINTXARRI



Lierni Arozenak 250 euroko saria eskuratu du, herrian gastatzeko. TXINTXARRI



Aterpeko kideak, udal ordezkariak eta sarituak erosketei hasi aurretik. TXINTXARRI

'Merci Maman': alaba eta bilobaren proiektua amonari buruz

Asun Moreno eta Andrea Van Eyck herritarrek liburu bat argitaratuko dute gaur, uztailak 30, 200 aleko tiradarekin

Txintxarri

Amona, alaba eta biloba. Era batera edo bestera, familia bereko hiru kide horiek dira *Merci Maman* proiektuaren protagonistak. Amona, egitasmoaren ardatz eta abiapuntua delako; alaba, Asun Moreno, kontakizuna idatzi duelako; eta, biloba, Andrea Van Eyck, hitzei irudiak jarri dizkielako, liburua ilustratuz. Van Eyck Londresen bizi da duela zenbait urtetatik, baina herrikoa da izatez, eta Moreno ere bai. Bera gure herrian bizi

da gaur egun ere. Lan eta lan aritu ostean, ondu dute *Merci maman*, eta gaur argitaratuko dute, uztailak 30, 200 aleko lehen tirada batekin. "Liburutegietara irailan iritsiko da, eta hori baino lehen aurre-salmentan eskuratu ahaliko dute irakurleek", azaldu du Andrea Van Eyck-ek. 699 475 725 telefonora deitu daiteke, eta baita ere honako Instagram kontuetan sartu: @soymylady eta @andreavaneyck. Lasarte-Oriakoak diren herritarrei eskura emango dizkiete

erositako liburuak, erreserbatu eta gero.

Bederatzi emanaldi prestatuta zituzten *Merci Maman* liburua aurkezteko, baina atzeratu egin behar izan dituzte, COVID-19aren pandemia tarteko. "Egoerak ahalbidetzen duenean" egingo dituzte, Donostian eta Madrilan. "Egitasmoa txikia da oraindik, eta moldaketa ugari egin behar izan ditugu COVID-19agatik, baina asko sinesten dugu hasi berri dugun proiektu honetan".

Amona, idazlearen ama, gaixo jarri zenean ekin zion Asun Morenok bide pertsonal bati, amaren barkamena lortzekoari. Hor jarri zuen *Merci Maman* idazteko aurreneko hazia. Liburuan hainbat gai jorratzen ditu: ama-alaben arteko harremanak eta osasun mentala (eta horren gabezia), besteak beste.



TXINTXARRI

Andatzako kioskoa, barku pirata

Arratsalde beroen freskagarri izan daitezke hondartza, itsasoa eta itsas bidaiak. Elementu horiekin blaitu eta alaitu dituzte ikusleak Erre Produzioak taldeko Alfonso Diez eta Gorka Minguez aktoreek. Kioskoa arrantzarako portu, hareatza eta, nagusiki, itsasontzi bilakatu dute hitzik gabeko *Piraten istorio bat* kontatzeko.

Azken eguna

Ttakunen Udako Txokoak gaur amaituko dira, uztailak 30

Aurtengo Udako Txokoetan parte hartu duten 200dik gora hurrek gaur esango diete agur begiraleei. Uztaila amaitzean da, eta baita Ttakun KEK aurten antolatu duen aisia egitasmo hori ere. Gaur, uztailak 30, ostegunarekin, ur-jolasak eta hamaiketako goxoak egingo dituzte, besteak beste.

Galeriatxo bat prestatu du TXINTXARRI aldizkariak hilabete zehar kubritu dituen zenbait ekintzarekin: Paula Gonzalez herritarraren baratzea ezagutzera joan zirenekoa, Atsobakar adinekoen egoitzako egoiliarrekin batera egin zuten kale ekintza, mural margoketa, etxeko materialak berrerabiliz sortutako malabaretarako tresnak, kamisetak serigrafiatu... Horiez gain, irteerak, ur-jolasak eta beste hamaika ekintza ere egin dituzte etxeko txikiek hilabete zehar, hirugarren astean salbu, zerbitzua etenda egon baitzen egun horietan, Eusko Jaurlaritzaren gomendioei jarraiki erabaki hori hartu zuelako Ttakun KEK.



Paula Gonzalezen baratzea ezagutu dute HH3 eta HH4ko gaztetxoek. TXINTXARRI



Kamisetak serigrafiatu bat. TXINTXARRI



Atsobakar egoitzako egoiliarrekin solasean. TXINTXARRI



Haur eta begiraleak, mural bat margotzen. TXINTXARRI



Malabareak egiteko etxeko materialarekin jostatzen. TXINTXARRI

IDATZIA

Udako Txokoak

TTAKUN KULTUR ELKARTEAREN UDAKO TXOKOETAKO BEGIRALE TALDEA

Ez da berria Udako Txokoetako begiraleok pairatu behar ditugun baldintza prekarioen egoera. Horri gehitu behar zaio Covid-19ak sortutako krisiak baldintza hauek oraindik eta okerragoak izatera eraman dituela.

Hasteko, azpimarratu nahi dugu gaur, uztailak 28, oraindik ez dugula inolako kontraturik sinatu. Honek, ziurgabetasun egoera batean egotera behartzen gaitu, gure lan baldintzak, soldata, oporrak, ordu kopurua etab. zeintzuk diren ondo jakin gabe.

Bestalde, Ttakun Kultur Elkarteak begiraleekiko izan duen komunikazio falta eta jarrera desegokia salatu nahi dugu. Izan ere, protokoloa momentuoro betetzea ezinezkoa izan genuenean arreta deitzeko bildu gintuzten, gure lanpostuarengan abisu honek ondorio zuzenak izanik, eta aitzitik, beste erabaki garrantzitsu batzuetarako ezjakintasun batean utzi gaituzte azken unerarte.

Horrez gain, Ttakunek ezarritako protokoloak zehazten zuen gisan, uneoro begiraleon segurtasuna zein osasuna bermatu beharrian, udalarekiko, herriarekiko eta gurasoekiko itxura ona mantendu nahi izan du elkarteak, gure ongizatea bigarren mailan utziz, begirale bakoitzak protokoloak zehaztu baino haur kopuru handiagoa izanik. Zuriketa honek, begiraleok babesik eta informaziorik gabe eta ezjakintasunean egotera behartu gaitu.

Gainera, Eusko Jaurlaritzaren gomendioz udako txokoak bertan behera geratzeko erabakia hartu zuen elkarteak aurreko astean zehar. Ondorioz, begiraleok horri dagokion soldata kobratu gabe geratu gara, langileon opor eskubideak urratuz eta gure borondatearen kontra ausentzia egoeran jarriz, gure disponibilitate osoa erakutsi arren. Gurasoei denbora tarte horri dagokion dirua itzuli zaien bitartean.

Azkenik, gure desadostasuna eta haserrea adierazi nahi dugu uztailak 28an Ttakuneko arduradunekin



Begiraleek protesta ekintza egin dute Okendon, asteazkenean. TXINTXARRI

eginiko bileran jaso genuen erantzunarekin, argitu gabeko galdera ugarirekin egin genuelako topo eta gure iritzia baliorik eman ez zuelako.

Inoiz imajinatu gabeko haurdunaldi, erditze eta osasun arreta pandemia garaian

Koronabirusak hankaz gora jarri zuen mundua martxo erdialdean. Orduz geroztik, buruz gora jartzeko ahaleginetan ari da gizartea, baina gaur-gaurkoz ezinezkoa izan da erabat zuzentzea. Zuzenean zerbait eragin badio pandemiak, osasungintzari izan da, eta, horrekin, pertsoneri. Besteak beste, haurdunaldien eta erditzeen orain arteko bideek beste noranzko bat hartu dute, eta horrek, mota guztietako ondorioak eragin ditu pazienteengan.

Lasarte-Oriako anbulatorioko emaginekin eta guraso izan diren Perez-Noreña eta guraso izateko puntuan diren Agirre-Iribar familiekin hitz egin du TXINTXARRI-k euren bizipenak jasotzeko

Maddi Zaldua

"Segurtasun falta eta abandonua sentitu dutela jakinarazi digute"

MARIAJE MIRANDA ETA AINHOA GONZALEZ

COVID-19ak eragindako pandemiak erabat aldatu du Lasarte-Oriako emaginen lan egiteko modua. Teknologia berriei esker jarraitu ahal izan dute pezieentekin harremanetan

Martxoaren 15etik aurrera, zenbait erronka berriri aurrea hartu behar izan diote Lasarte-Oriako emaginek ere. Espainiako Gobernuak agindutako etxealdiaren ondorioz, euren ordura arteko lan egiteko modua hankaz gora jarri, eta alternatiba berriak bilatu behar izan dituzte pazienteak artatzen jarraitu eta behar duten arreta emateko. Alarma Egoera deklaratzearrekin batera aldatu zen haurdunaldi kontrolen protokoloa, esaterako. Martxora arte, haurdun zeuden familiak aurrez aurre artatzen zituzten, baina egun batetik bestera, telefono bidezkoak bakarrik bihurtu ziren jarraipen kontsulta horiek. Emaginek eta pazienteek, denek egokitu behar izan dute baldintza berrietara,

eta moldatu diren arren, ez da bide erraza izaten ari.

Aurrez aurreko kontsultetan "informazio gehiago" biltzen dela azpimarratu du Mariaje Miranda Lasarte-Oriako emaginak, eta pandemiak eragindako protokolo aldaketaren aurretik bere pazienteak gehiago ezagutzen zituela nabarmendu. Hori azken aldiaren ezinezkoa izan da, eta telematikoki lan egitera ohitzen ari dira oraindik ere.

Abantailak ikusten dizkio lan egiteko modu berriari: "Aurrez aurreko arreta ezinezkoa izan denean, gure pazienteekin komunikatuta mantentzea ahalbidetu digute teknologia berriek, baina kontroletako zenbait parametro ezin dira

telefonoz neurtu; haurdun dagoen pertsonaren pisua eta tentsioa esaterako".

Aurrez aurreko arreta zerbitzuak eteteak "segurtasun falta" eragin diela jakinarazi diete paziente batek baino gehiagok, "abandonatuta" sentitu direla, eta horrelako sentipenen berri ematen zuten pazienteak, kontsultan artatu ditu Mirandak.

Haurdunaldi aurreko prestaketa saioak ere eten, eta teknologia berriak maneiatzen ikasten ari da herriko anbulategiko emagina: "Paziente askok eskertu digu alternatiba hori eskuragarri jarri izana". Berarentzat, ordea, "iraultza bat" izan da, orain arte ez baitzuten erabiltzen. Pixkanaka-



Mariaje Miranda eta Ainhoa Gonzalez herriko anbulategiko emaginak. MARIAJE MIRANDA

pixkanaka ikasten ari da, eta "oso pozik" agertu da horiek ematen dituzten aukerekin: "Ezin da aurrez aurreko kontsultekin konparatu, baina elkarrekin egoteko aukera eman digu". Halere, antzeman du prestaketa saioetan izen emateen beharakada, eta eskaintza teknologia berrien bidezkoa izateak eragina duela uste du.

Egoera zerbait aldatu da

Alarma egoera amaitu zenetik zenbait hitzordu presentzial

berreskuratu dituztela azaldu du Mirandak, horien artean, kontrol kontsultak, baina antza gutxi dute orain artekoekin: "Haurdun dagoen pertsona soilik sartu daiteke kontsultara".

Erditze aurreko saioak, bideo-deien bidez egiten dituzte oraindik, eta, badirudi, teknologia berriak geratzeko etorri direla, izan ere, irailetik aurrera, haurdunaldi ondorengo eta edoskitze saioak ere teknologia berrien bidez eskaintzea planteatzen ari dira.

"Bizipena partekatu nahi duzunean, etxetik irteteko debekua iristen da"

IRATI IRIBAR ETA AITZOL AGIRRE

Haurdunaldiaren bigarren hiruhilekoa etxean itxita bizitzea eragin dio, besteak beste, koronabirusak Agirre-Iribar familiari. Ziurgabetasun handiko uneak bizitu dituzte

Ez zuten inola ere imajinatu Irati Iribarrek (Lasarte-Oria, 1991) eta Aitzol Agirrek (Usurbil, 1988) haurdunaldiaren bigarren hiruhilekoa etxean itxita bizitzea egokituko zitzaizkien. Haurdunaldiaren hamabigarren astean zeuden konfinamendu agindua eman zutenean; inguruko askok ere haurdun zeudenik ez zekitenean sartu ziren etxean, eta Iribarren tripa hazita atera ziren lehen paseoak ematera. Zutik zura kontatzeko aukerarik gabe ere geratu ziren, eta sare sozialen bidez komunikatu behar izan zieten inguruko bati baino gehiagori: "Hoztasuna sentitu genuen; aurrez aurre konpartitu nahi genuen, baina egoerak aukera hori ere kendu zigun".

Haurdunaldiak aurrera egin ahala, familiarekin eta lagunekin partekatze gogoia ere bere

horretan geratu zitzaizkien, gogoan, maiatzean paseoak emateko aukera eman zuten arte. "Gure gurasoek, adibidez, haurdunaldiaren bi hilabete galdu dituzte; bideo-deiekin konformatu behar izan dute".

Aurrez aurreko kontsultarik gabe Konfinamendu agindua baino lehen, aurrez aurreko bi kontsulta izan zituzten, eta telefonoz jarraitu zuten gero hitzorduek: "Hiru minutuko kontsultak izan dira, hotzak, gertutasunik gabeak. Ezin izan didate tentsiorik neurtu, ezta pisurik ere, ezta ere ohiko aurrez aurreko kontsultetan neurtzen duten haurraren bihotz taupadarik entzun ere; dena ondo zegoela suposatu behar izan dugu eta guzti horrek ziurgabetasun handia sortu digu".

Haurdunaldian zehar, emaginek emandako gomendioak jarraitzeko ere nahiko lan izan ditu Iribarrek: "Paseatzea eta eguzkia hartzea aholkatzen dizute, baina nola egin dezakezu hori etxetik atera ezin duzunean? Itxialdian, etxeko pasilloan ibili naiz aurrera eta atzera, egunero".

Bikotearen egoera ere jarri nahi izan du mahai gainean. Azaldu du gaur-gaurkoz, haurraren aitak ezin izan duela kontsulta bakar batera ere sartu, eta ez duela zuzeneko ekografietan bada ere semea ezagutzeko aukerarik izan.

Egokitzea beste aukerarik ez Egoerara ahalik eta ondoen moldatzea beste erremediorik ez dute izan, baina osasun larrialdiaren ondorio onuragarriak ere zerrendatu



Irati Iribar haurdun, konfinamendu garaian ateratako argazki batean. IRATI IRIBAR

dituzte: "Guztia ez da txarra izan, haurdunak arrisku taldearen barruan sartu gintuztenez, baja eman zidaten lanean; horrela etxean erritmo lasaiago batean igaro ditut egunak, lanean aritzeak sortzen duen nekearen gainkargarik gabe". Otorduetan ere antzeman du aldea: "Lanera noanean, lanaldia amaituta bazkaltzen dut, jardun horrek markatzen ditu nire otorduak, eta orain, aldiz, gorputzak eskatu didanean jan dut".

Haurdunaldi prozesu berean egon den gertuko lagun bat izan

du Iribarrek bidelagun hilabete hauetan, eta hori oso "baliagarria" izan zaio. Orain, erditze aurreko prestaketa saioretan –gehienak bideo deien bidez egindakoak– ari dira, baina hor ere, ohiko egoera batean ez bezala, gainerako familiak ezagutzeko aukerarik gabe.

Aurrez aurreko kontsultetara joateko aukerak bueltatu dira, baita guraso eta lagunekin haurdunaldia partekatzea ere. Arindu da itxialdiak sortutako ezinegona eta semearen etorrera prestatzea da eguneroko lana.

"Bizi izan dugun ziurgabetasuna ez diogu inori desio"

IDOIA NOREÑA, FELIX PEREZ ETA LAIA PEREZ

Haurdunaldiaren azken hilabete eta erdia konfinatuta pasatzea beste aukerarik ez du izan Perez-Noreña familiak. Alabaren jaiotzak arindu dizkie itxialdiaren ondorioak

Alabaren erditze garaia konfinamendu bete-betean harrapatu zuen Perez-Noreña familia. Apirilaren 7an betetzen zituen 40 aste haurdun Idoia Noreñak (Lasarte-Oria, 1989), eta azken hilabete eta erdia etxetik atera ezinik igaro behar izan zuen. Erditze aurreko prestaketak justu-justu amaitu zituzten itxialdia agindu baino lehen, baina prestaketa guztiak eginda izan arren, osasun larrialdiak "beldur eta ziurgabetasuna" eragin zituen beragan eta baita bere senar Felixengan (Tolosa, 1985) ere. "Askotan sentitu genuen ez zela unerik egokiena Laia alaba jaiotzeko, baina egun batetik

besterako kontua zenez, birusari beldurrik izan gabe, pozik mantendu gintuen egoera nahasi guzti hartan".

Idoiak ere, Irati Iribarrek bezala, bikotearen falta sumatu zuen erditze aurreko azken kontsultetan, berak bakarrik sartu ahal izan erditze aurreko azken kontsultetan; aita, bitartean, itxaron gelan zain.

Ospitalean segurtasuna

Ospitalera, Laia alabaren erditzera iritsi zirenean, bertan zehaztutako segurtasun protokoloa jarraitu behar izan zuten. Berehala konturatu ziren, hartu beharreko neurriak ondo zehaztuta zedela:



idoia Noreña eta Felix Perez, Laia alaba eskuetan dutela, etxean. IDOIA NOREÑA

"Koronabirusarekin kutsatutako pertsonentzako erditze eta ebakuntza gela isolatua prest zituzten, eta erditze ondorengo gelak, familia bakarrarentzat prestatu zituzten".

Laia jaio zenean, gurasoak elkarrekin zeuden, baina orduan ere sentitutako bakardade sentimendua oso gogoan dute: "Ospitalean egondako egunetan ezin izan gintuen inork bisitatu,

eta hirurok bakarrik egotea polita izan den arren, sumatzen genuen gertukoekin bisiten falta; pena ematen zigun Laia ezagutzeko aukerarik ez edukitzeak".

Ospitaleko egunak pasa, eta etxera iristean ere beste muga bat aurrez aurre: konfinamenduagatik kalera irteteko aukerarik ez. Jaioberriarekin 24 orduak egoteko aprobetxatu eta "zoriontsu" bizitu dute aldi hori ere. Noski, sumatu dute gertukoekin egoteko beharra, batez ere Felixek eta bere gurasoek. Ez dira Lasarte-Oria bizi, eta bilobak hilabete zuzenean ezagutu ahal izan zuten aurrez aurre: "Konfinamenduak amaitu bitartean, bideo-deien bidez ezagutu dute gure gertukoek Laia. Alabaren jaiotzarekin batera ezinegona eta min guztiak desagertu zitzaizkigun arren, bizi dugun ziurgabetasun egoera ez diogu inori desio".

Ezohiko Santa Ana eguna

Parodia, kultur etxean

Ezohiko egoerari egokitu dituzte Santa Ana eta San Joakin eguneko ospakizunak ere. Murriztuta eta mugatuta bada ere, santuaren omenezko ekimenak ez dira falta izan uztailaren 26an. Gaueko parodiaren aurretik, goizean meza jendetsua egin dute Ama Brigitarren komentuan eta, ohi bezala, Erketz dantza taldeek kideek parte hartu dute, aldare aurrean dantza eginda. Elizkizuna amaituta, jaien zapi eta ikurrina batekin apaindutako Santa Ana karkabara joan dira.

Santa Ana eguneko parodiak ohiko egoeratik urruti bada ere, izpiritu berari heldu dio. Kultur etxetik zeruarekin (in the Skype) eta herriko beste txoko batzuekin konexioak eginez, urteari errepassoa egin diote kritikaz ziprztindutako umorez. Ordu eta erdi luzatu den ikuskizunak koronabirusaren eragina izan du ardatz, eta haien (ustezko) erantzuleak, protagonista. 70 urte ez dira egunero betetzen eta Santa Ana parodiari testuinguru arraroa egokitu zaio zenbaki biribil hori urratzeko. Parte hartzen duten herritarrak aurrera luze jarraitzeko gogoz daude, baina "Okendon, normaltasunez". 2020ak zerbait izango ez badu (ezta izango ere), horixe da, normaltasuna. COVID-19ak eragindako falta horrek isla ugari izan ditu aurtengo parodian: lekuan, egituraren eta mamian.

Epaiketa formako errepasso umoretsu eta kritikor horren aurretik, ordea, itxialdian ehundutako Lasarte-Oriako babes sarea aitortu eta zoriondu dute, pandemiak eraginak aritzeko egindako lanagatik. Ordezkaririk ez da bertaratu, baina mezu bat bidali dute. Entzun aurretik, ordea, Lierni Rekondok bertso batzuk eskaini dizkie. Ondoren, kideek, zenbait ahotsetan, eskerrak eman dizkiete 45 boluntarioei nahiz Palmondo Irratiari, eta egindakoari buruz hausnartu dute. "Sentipen gazi-goza" dute, "errealitate murriz" batera heldu direla uste baitute, eta aurrera begira "komunitate ezberdinak ezagutu eta saretzea" dute erronka.

Eta orduan, bai; parodia hasi da. Agertoki erdian zegoen ciclostatic bizikleta estatikoaren ondora agertu da urteko protagonista den birusari ezinbestean lotuta dagoen pertsonetako bat: Fernando Simon. Lasarte-Oriako Alerta eta Osasun Larrialdietako Koordinazio Zentruko zuzendariak itxialdiak gure bizimoduetan eragindako aldaketak erreparatu ditu, fasez fase: memeak, txaloak, kazeroladak, ogia egitea, bideo deiak... Bere azalpenak amaituta, epaiketarako beharrezkoei utzi die oholta gaina: epailea, fiskala eta abokatua. Denak pantaila, eskularru eta gelek, noski. Gainerako pertsonaiek huts egin dute: mileketek, idazkariak, San Joakin, Santa Ana eta Basajaunek oporretan jarraitzea nahiago izan dute.

Finantza Tapia Handikotrena eta Ezleturia Muskuilu Errobotikonandia izan dira akusatua, Tapia eta Ezleturia bezala ezagunagoak, urtea zehar herrian egindako triskantzengatik epaitu dituzte. Erraustegia eta Abiadura Handiko Trena baino larriagoak diren karguak egotzi dizkie fiskalak, eta haiek argudiatzeko ahaleginean mokoka aritu dira bi legegariak, argudio xebleak erabili. Erabakitze garaia heldu da gero. Epaiarenderak, Pilatosen moduan "eskuak garbitu" ohi ditu, oraingoan, eskularruak kendu, eta santuei nahiz Basajauni egotzi die ardura. Santa Anak zein San Joakinek deliberatu beharrean bedeinkapena eman diete bertaratutakoei, eta Basajaunen esku utzi dute epaia. Eta honek argi izan du: Sutar! Abokatua haien erugabetasuna frogatu nahian ahalegindu bada ere, amaiera nahiko agerikoa zen bi akusatuentzat.



Ezleturia Muskuilu Errobotikonandia eta Finantza Tapia Handikotrena izan dira aurtengo



Mezara joan diren herritar batzuek Santa Ana zapiak eraman dituzte. TXINTXARRI




Erketz EDTko kideek Santa Ana karkaban dantzatu dute igande eguerdian, uztailak 26. Hori baino lehen, Brigitarren komentuan ospatutako elizkizunean ere aritu dira. TXINTXARRI





akusatuak; urtean zehar herrian egindako triskantzengatik epaitu dituzte. TXINTXARRI



COVID-19ak Lasarte-Orian eragindako kalteak aztertu ditu Fernando Simonek aurtengo parodian. TXINTXARRI



Lierni Rekondok bertso ederrak abestu ditu parodia hasi aurretik. TXINTXARRI



Defentsa abokatua eta fiskala, ika-mikan. Tapia eta Ezleturia akusatuak ez dira sutara kondenatuak izatetik libratu. TXINTXARRI

Oporretako ARGAZKI LEHIAKETA saria!

ALDIKA produktu sorta eskura dezakezu

aldika
producción selectiva

Atera itzazu argazki politak oporretan eta igo **TXINTXARRI.eus-era**

Irailaren 6ra arte parte har dezakezue! Oinarriak: www.txintxarri.eus/lehiaketa



Ezkerrean, Jon Pello Artetxe eta Irazustabarrena Zikuñaga Papelera torneoko txapela eta sarian jasotzen. Eskubian, Intzako pilotaria finaleko une batean. KRONIKA



Artetxe txapeldun Hernaniko torneoan

Intxurre elkarteko Irazustabarrenarekin batera, Zikuñaga Papelera txapelketan 5-18 gailendu zen herritarra senior mailako finalean. Lehen tantoetan partida aurka jarri arren, ederki erantzun du bikoteak eta eroso jokatu, garaipena lortu du

Txintxarri

Uztailaren 25ean, larunbatarekin, egun osoko pilota jaialdia jokatu zen Hernaniko kiroldegiko frontoian, Zikuñaga Papelera torneoko finalak. Ekainaren 29an hasi zen txapelketa eta jardunaldiz jardunaldi lehia hasi zuten maila ezberdinetako 51 bikoteetatik hamabi besterik ez ziren iritsi finalen hitzorduetara. Goizeko final handian, senior mailako partidari, Intza elkarteko Jon Pello Artetxek eta Intxurre elkarteko Irazustabarrenak euren parte hartzeari amaiera biribila

eman zioten torneoko txapela jantziz.

Eskudero andoaindarra eta Labaka hernaniarra izan zituzten arerio eta 5-18 garaitu zituzten ongi jokatutako partidari. Intzako pilotariak adierazi duenez, "oso gustura" jokatu zuen.

Hasierako tantoen ostean, partida gorri izango zela zirudien arren, Artetxek eta Irazustabarrenak 4 eta 1eko markagailuari erabat irauli eman zioten hamasei tanto jarraian eginez. "4-1 galtzen ari ginen, baina zuzenean

hamazazpiraino joan ginen", adierazi du herritarrek.

Lehen momentuko estatusuna igaro eta Artetxe-Irazustabarrena bikotea eroso egon zen kantxan. "Irazustabarrena atzean nagusi izan zen", azpimarratu du pilotari lasarteoriatarrek. Aurrean ere arazorik gabe jokatzeko aukera izan zuela nabarmendu du Artetxek. "Nik aurrean aukera mordo bat izan nuen tantoak bukatzeko, gehiegi arriskatzen ibili beharrik gabe".

Hanka-sartze handirik ere ez zuten egin. "Ez genuen pilota

bakar bat ere galdu". Horrek tantoz tanto garaipenaren bidera eramane zituena, arerioen atsekaberako.

Gonbidapenen zain

Artetxe pozarren dago Hernaniko txapelketan lortutako garaipenarekin, baina ez daki udan lehiatzen jarraitu ahalko duen.

Intzako pilotariak azaldu digunez, ezohiko uda honetan antolatzen ari diren txapelketek parte-hartze mugatua dute eta gehienetan aukeraketa egiten ari dira.

"Ez zait atera beste partidarik oraingoz. Txapelketaren bat edo beste jokatu da baina oraingoz gonbidapen bidez ari dira antolatzen, beraz, itxarotea besterik ez dugu", adierazi du. Hori dela eta, Intzako kideak ez dio entrenatzeari utziko.

Arteagak ere, atsedetik ez

Partidaz partida dabil Axier Arteaga Arteaga II.a ere. Nahiz eta Masters Caixabank

txapelketan oraindik parte hartzerik ez izan, aurretiko partidetan astebururo ari da lehia herritarra.

Uztailaren 26an, igandearekin, Mariezkurrena II.a bikote zuela Zarauzko Aritz batalde pilotalekuan jokatu zuen partida.

Aurreikuspenen arabera, Peio Etxeberria eta Bikuñaren aurka jokatu behar zuten arren, atzelari urdinak ezin izan zuten hitzorduan parte hartu eta Ladis Galarzak hartu zuen bere lekua. Partida ez zen eroso izan bikote gorriarentzat eta amaieran, 9-22 gaildu zuen.

Arteagak bihar garaipenaren bidera itzultzeko aukera berria izango du, uztailak 31. Urretabizkaia II.a lagun duela, Eguiguren V.a eta Erostarberen aurka jokatu du Itziarren, Zabalsoro pilotalekuan, 18:00etatik aurrera.

Abuztuaren ere ez da besoak uztarturik izango herritarra. Egutegiaren arabera, Zestoan, Oartzunen edo Mallabian izango ditu hitzorduak lehen hamabostaldian.

Ostadar SKTk txirrindularitza porra antolatu du

Abuztuaren 29an hasiko da eta aurten, berrikuntza modura, txartelak Internet bidez ere egin ahalko dira

Txintxarri

Tourreko lehen jardunaldiarekin batera, abuztuaren 29an emango dio hasiera 2020 urteko Ostadar SKTko txirrindularitza porrak.

Tourreko txartelak egiteko bi aukera eskaini ditu aurten

Ostadar SKTk. Ohikoa den bezala, herriko tabernetan txartelak eskuratu ahalko dira, baina estreinekoz etxetik ere txartela osatzeko aukera izango da.

Abuztuko azken astean Ostadar SKTk bere webgunean esteka

bat argitaratuko du eta bertan egin ahalko dute herritarrek euren aukeraketa.

Bide hori erabiltzen duten herritarrek txartelaren ordainketa Bizum bidez, 623 168 454 telefonoan, egin beharko dute. Ordainketa egiterako orduan, kontzeptuan txartelaren izena jarri behar dutela azaldu dute antolatzaileek.

Abuztuaren 29an, larunbatez, 21:00etan, itxiko da epea txartelak bete edo tabernetan egongo diren kutxetan uzteko.

Sariari dagokionez, Frantziako Itzuliko porrako irabazleak 360 euro jasoko ditu; bigarrenak, berriz, 180 euro. Eta puntu gehien lortzen dituen tabernak Txartel Txokon bi pertsonentzako afari bat irabaziko du.

Tourra, Giroa eta Espainiako itzuliko txartel onenak sari nagusia eskuratuko du, 1.500 eurokoa.

Antolatzaileek jakitera eman dutenez, COVID-19a dela eta itzuliren bat bertan behera geratuz gero, porra ere eten

egino litzateke. Azken jardunaldiak berdin puntuatuko luke eta azken sailkapenerako, G puntuazio berezia aplikatuko litzateke. Itzuli horretako sariak berdin mantenduko lirateke.

Sari nagusiaren zenbatekoa ere aldatuko litzateke. Hiru itzuliak egiten badira, 1.500 euroko saria izango da; bi jokatzen badira, txartel onenak 1.000 euro jasoko ditu eta itzulietako bakarrean azken helmugara iristen badira, ez da sari nagusirik izango.

Sari handien garaia Hipodromora iristear da

Abuztuaren 15ean jokatu den Urrezko Koparako hautagai direla erakutsi dute Cosmic Horizon eta Atty Persse zaldiek, Biarritzeko Hipodromoa sarian. Gertaera historiko bat ere eman da: hiru probetan emakume hockeyak izan dira garaile

Txintxarri

Zaldi lasterketen denboraldia hilabete erabakiorrean sartuko da. Urrezko kopa, Eusko Jaurlaritzaren saria, Donostiako Udala saria... Hainbat izango dira abuztuaren eta irailean lehiatuko diren sariak. Uztailaren 26an, Urrezko Kopako txapeldungaiak ezagutzeko aukera ederra izan zen jokatu ziren bi probetan, Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako *Piztu Kultura* saria eta Biarritzeko Hipodromoa saria.

Biarritzeko Hipodromoa saria eguneko bigarren proba izan zen. Kalitate handiko lasterketaz gozatu ahal izan zuten ikusleek eta Cosmic Horizon eta Atty Persse zaldiek Urrezko Koparako euren hautagaitza erakutsi zuten.

Bi zaldien arteko norgehiagoka helmugako zuzenean eman zen: Atty Persse aurrean zihoan eta atzetik pixkanaka joan zen Vaclav Janacekek gidatu eta G. Arizkorretak entrenatutako



Zaldiak lasterka bizian, Ayerdi bitxitegia sarian. DONOSTIAKO HIPODROMOA

gerturatzen. Helmugan paretsu sartu eta fotofinishak erabaki behar izan zuten garailea, Cosmic Horizon.

Eguneko azken proban, berriz, Piztu Kultura sarian Urrezko Kopa lehiatu ahal duten hiru

urteko zaldiek parte hartu zuten. Proba honetarako ohikoa ez den bezala, kalitate gutxiko lehia izan zen eta aurreikuspen guztiak hautsiz, Miloslava Hrubosovak gidatu eta G. Arizkorretak entrenatutako Turandot zaldiak

lortu zuen garapeina nagusitasunez.

Tartean beste hiru proba ere izan ziren: Hipodromoa Turf saria, Ayerdi Bitxitegia eta Noticias de Gipuzkoa proba.

Hipodromoa Turf sariak eman zion hasiera jardunaldiari. Jardunaldiko motorrak berotzeko proba ederra izan zen. Hipodromoan debuta egiten duten zaldi eta behorrek parte hartu zuten eta azken metroetan lehia handia ikusi zen. Atzetik etorritako Lone Peak zaldi frantsesak eraman zuen saria Cristina Buesa jockeya eta J. C. Cerqueira prestatzailearen pozerako.

Ayerdi bitxitegia saria izan zen eguneko hirugarren proba. Azken zuzenekoan, Lara Martinez gazteak gidatutako Monzalvos zaldiak aurre hartu ziren arerioei eta ederki mantendu zuten lehen postua helmugaraino.

Arratsaldeko laugarren proban, Valenzuelak gidatutako Orri zaldia igo zen nagusitasunez Noticias de Gipuzkoa sariko podiumeko koska gorenera.

Emakumeak podiumean

Emaitzak aztertuta, Donostiako Hipodromoan ohikoa ez den gertaera jazo zen igandean, bost lasterketetatik hirutan jockey emakumeak izan ziren nagusi.

Adituen arabera, Hipodromoan 2012. urtean izan zen azken aldian emaitza horiek ematen zirenak. Beraz, Cristina Buesak, Lara

Martinezek eta Miloslava Hrubosovak orrialde berri bat gehitu diote Donostiako Hipodromoko historiari.

Lehia handiak

Arestian aipatu bezala, abuztuaren eta irailean ez da aspertzeko astirik izango Hipodromoan eta lehia handiak espero dituzte zaletuek.

Denboraldiko proba nagusia, 52. Urrezko kopa, abuztuaren 15ean, larunbatarekin jokatu da, baina izango da besterik. Igande honetan, abuztuaren 2an, El Diario Vasco saria lehiatuko da; abuztuaren 21ean, PMC saria; Eusko Jaurlaritzaren Saria, abuztuaren 23an eta hiru egun geroago, abuztuaren 26an, Criterium Internacional saria Irailean bi jardunaldi izango dira: 2an, Grupo Carrus saria eta 6an, Donostia Saria.

Sarrerak aurrez erosi

Ezohiko denboraldi honetan, pixkanaka normaltasun berrira moldatzen ari da Hipodromoa eta, besteak beste, uztailaren asteburuetan zaletuek apostuak egiteko aukera izan dute.

Hala ere, edukiera mugatuta dago oraindik eta Hipodromoan 1.000 pertsona bakarrik sar daitezke. Osasun neurriak kontuan hartuta, jardunaldietako sarrerak *ticketmaster.es* orrialdean daude eskuragarri eta bertan saltzen ez direnak, egunean bertan leihatilari erosi ahal dira.

Ligaren etena, azken asteetako ustekabeak gainditzeko

Donostia Arraun Lagunak traineruko kideek negatibo eman dute PCR proban eta lanean dira dagoeneko

Txintxarri

Arrauneko Espainiako Txapelketa jokatu da asteburu honetan Pedreñan, Kantabria, eta arraun ligetako etena izango da. Azken asteetako gorabeherak alde batera uzteko ederki etorriko zaie Donostia Arraun Lagunak eta Hibaika Susperregi taldeko eskifaiei.

COVID-19aren agerraldi bat tarteko, Euskotren ligako azken hiru jardunaldiak etxean ikusi behar izan dituzte Aiora Belartietan herritarrek eta Donostia Arraun Lagunak

elkarteko kideek. Uztailaren 26an, igandearrekin, Osakidetzak arraunlari eta teknikoei egindako PCR probek negatibo eman zutela jakinarazi zuten elkarteak. Astelehenean lanean hasi ziren hurrengo hitzorduak prestatzeko.

KAE2 mailan, ordea, jardunaldi bikoitza izan zuten Hibaika Susperregi traineruak.

Uztailaren 25ean, Mutrikuko Yurrita Group Bandera jokatu zen, Getarian. Gaizka Ormazabal kide duen eskifaia Zarautz BabyAuto eta IRC Santoñarekin batera lehen txandan parte hartu

zuen eta bere txandako denborarik onena egin zuen. Sailkapen orokorrean, berriz, zazpigarren izan zen.

Hirugarren luzean eta ziabogan, lan ederra egin zuten Ormazabalen taldeak eta estropada hasieratik buru zen Zarautz BabyAuto aurreratu zuen Errenteriako traineruak. Azken txanpa gainera, bost segundoko tartea ireki zuen.

Igandean, berriz, 700. Errenteriako Udala bandera zegoen jokoan Pasaia Donibanen eta 9. postua eskuratu zuen Hibaika Susperregik.

Bigarren txandan lehiatu zen eta AN Castro, Mutriku eta Busturialdea izan zituen arerio.

Lehen paladetatik Castro eta Mutrikuk aurre hartu zuten eta atzetik, segundo batzuetara Errenteriako trainerua joan zen.



Hibaika Susperregi trainerua uztailaren 19an Getarian jokatu zen proban. HIBAIIKA

Bigarren luzean tartea ireki zuten aurreko bi traineruek eta atzetik Busturialdea gerturatzen hasi zen.

Hirugarren luzean, berriz, Hibaikak ezin izan zion erritmoari eutsi eta Busturialdeak aurre

hartu zion, pixkanaka tartea irekiz.

Etenaren ostean, herritarren hitzorduak hauek izango dira: abuztuaren 8an, Hondarribian eta Getarian; egun bat beranduago, 9an, Ondarroan eta Getxon.



Reto Iberdrola ligara igotzetik urrats batera geratu badira ere, denboraldi aparta egin du Añorgak; irri egiteko motibo asko ditu taldeak. AKKE

Esperientzia ahaztezin bat

Añorga KKE Reto Iberdrola ligara igotzear geratu da. Gogotik saiatu da, baina 0-1 galdu du UD Aldaia CF taldearen kontra. Bizitakoa balioan jarri, eta datorren denboraldiari ekiteko irrikaz daude. Oraindik ez dakite noiz hasi ahalko duten entrenamendu saioekin

Iñigo Gonzalez Sarobe

Añorga KKEk ez du Reto Iberdrola ligan jokatu datorren denboraldian. Hatz-mamiekin ukitu du igoera, baina ez da posible izan. UD Aldaia CF valentziarrak poltsikoratu du txartela, talde gipuzkoarrari 0-1 irabazita. Batzuk irabazle argazkian, eta galtzaile besteak. Hori da kirola, hori da futbola. Final bat, 90 minutu, garaile eta garaitu bana.

Datu hotzek hala diote. Hori da Madrilgo Las Rozas hirian jazo dena. Ados, baina, horrek zer esan nahi du, ezin dela gainontzeko guztia baloratu? Ezin dela minutu batez eseri, memoria ariketa bat egin, eta esperientzia ahaztezin horretan bizitakoa balioan jarri? Egia da Añorga ez dela kategoriaz igoko, baina egia da baita ere merezimendu osoz jokatu duela partida erabakigarria, 1. Nazional mailako 2. multzoko txapeliduna

izan baita. Sekulako denboraldia egin du taldeak, eta ginga jarri ez badio ere, gozatu ederra hartu du bidea zeharkatu bitartean. Eta asko ikasi du datorren sasoirako bidean. Are indartsuago itzuliko da, gogo eta ilusio gehiagorekin, zaila bada ere. Galde diezaiotela bestela entrenatzaileari, Javi Solchagari: "Aste morderoa igaro ditugu ia-ia futbola geneukala bakarrik buruan, oso intentsoak izan dira, baina hurrengo sasoi hasteko irrikaz gaude; guregatik balitz, lehenbailehen". COVID-19a dela eta, zain daude, ez baitakite noiz ekingo dieten entrenamenduei

"AGIAN IRAILAREN 27AN HAS GAITEZKEELA ESAN DUTE, BAINA ORAINDIK EZ DAKIGU"

berriro. "Esan digute agian Reto Iberdrolakoekin batera hasiko dugula liga, irailaren 27an, baina oraindik ez dakigu".

Aukerak bai, golik ez

"Aldaiak lehen zati hobeak jokatu zuen, azken hamabost minutuak batez ere, eta 0-1eko 44. minutuan sartu ziguten, atsedena dirira joatear geundenean; mina egin zigun horrek", gogoratu du Solchagak. Hala ere, Añorgak eduki zituen aukerak markagailua irekitzeko, baina ez zuen asmatu. Hidratatzeko tartea eta etenaldia baliatu zuten gipuzkoarrek aspektu tekniko eta taktiko batzuk zuzentzeko, eta bigarren zatian indar betean zelairatu ziren. Aukera garbiak, jaurtiketa libreak, kornerrak... Baina, azkenean, ezin arerioaren atea zulatu. 0-1. Bukatu eta berehala, tristura, malkoak eta atsekabea. "Partida amaitu eta

ordu erdira arte ez ginen egoerari buelta ematen hasi, eta, gainera, tartean, prentsaurrekora joan behar izan genuen bi jokalarik eta nik. Ez zen erraza izan".

Ordutik aurrera, pixkanaka, beste ikuspuntu batetik aztertu zuten ordura arte egindako guztia. Prestaketa lanetan sartutako ordu eta egunak, bidaia, Madril pasatako orduak, partida hasi aurreko kontzentrazioa. "Ikaragarria izan zen autobusean bizitakoa, jokalariek ikaragarri kontzentratuta zeuden, isiltasuna entzun egiten zen". Autobus horretan pasatako orduak taldea "indartu" egin dutela uste du herritarrak, eta baita asteburu osoko esperientziak ere.

Ikasgai baliotsua izango da datorren denboraldirako. "Jokalariek guztiek jarraituko dute, eta guk, entrenatzaileok, ere bai". Bizkerre izan dute arerio nagusi aurten, eta badirudi 2020-2021 sasoiaren ere hala izango dela. "Fitxaketa ugari egin dituzte, maila altukoak; Realaren bigarren taldearen aurka ere jokatu dugu". Horrek ez ditu aňorgatarrak kikiltzen, ordea. "Guk ere talde oso sendoa daukagu, jokalariek gazte ugari hasi dira gurekin aurten eta maila ederra eman dute, eta beterranoek ere bai. Datorren denboraldirako prest gaude".

Ainara del Olmo eta Izaskun San Aniceto lasarte-oriatarrek berdegunetik bizitu dute sasoi berezi hau. Javi Solchaga, Julen Ormazabal, Asier Pavon eta Jon Presak berriz, kanpotik, entrenatzaile taldeko kide baitira, Jon Saldias donostiarrarekin batera. Baina badaude herritar gehiago Añorgaren arrakastaren atzean. "Nabarmendu nahiko nuke Alba Cruz nutrizionistak urte osoan zehar egiten duen lana; elikadura eta hidratazioa ere oso inportanteak dira, jokalariek jarraitu dituzte Albaren jarraibideak eta hori nabaritu da zelaian", aitortu du Solchagak. "Jon Presak ere lan bikaina egin du entrenamenduak prestatzen", gehitu du. 25 jokalariek ditu Añorgak, eta bakarrak min hartu du, belaunean. Lesio muskularrak ez dute izan asteotan.

PANDEMIAGATIK, BOST HILABETE PASA DITU KONPETITU GABE AÑORGAK ERE; MAILA ONA EMAN DU

Zelaian gehiegi nabaritu ez dena izan da azken bost hilabeteak pandemiagatik konpetitu gabe pasa dituztela finalak jokatu dituzten taldeek. Maila ona eskaini dute, eta partida denetan emozioak azken segundora arte iraun du. "Igo diren taldeek gol batengatik irabazi dituzte neurketak; oso paretsuak izan dira".

Animoak eta ikusmina


TXINTXARRI astearte arratsaldean elkartu da Javi Solchagarekin, eta solasean aritu bitartean makina bat herritar geratu dira berarekin hitz egitera; autoan zihozten batzuek bozina ere jo dute agur egiteko. Ikusmina sortu du Añorgaren denboraldiak, eta ez zale, lagun eta senideen artean bakarrik. Solchagaren telefonoa jo eta jo aritu da asteotan, hainbat hedabide jarri baitira berarekin harremanetan, Añorgak aurretik zuen erronkaren berri emateko. "Argazkiak egitera ere etorri dira askotan, asko eskertzen dugu arreta; esperientzia berri bat izan da hau ere guretzat". Partida prestatzeko modua berria eta ezohikoa izan da baita ere: jokalariek egunero hartzen zuten gorputzeko tenperatura, ezin zuten materiala ukitu, bakoitzak bere ur botilatxotik edan beharra... Futbola "normaltasun berrian". Beraiek bizi izan dutenetik abiatuta, Solchagak dio ez duela batere argi ikusten denboraldi berria noiz hasi daitekeen: "Asteotan zelaian gu bakarrik aritu gara, baina normalean bi talderen artean partekatzen dugu, materiala guztiontzat da berdina... Egoera dagoen bezala egonda, asko atzeratu daiteke dena".

Entrenamenduei berriz ekiteko irrikaz daude, baina oraingoz ezin dute. Aste hauek, deskonektatzeko aproposak izatez gain, balio dezakete azkenaldian joan den asteburuan, bereziki bizitako guztia gogoratu eta prozesatzeko. Momentu tristeak, pozgarriak eta emozionanteak. Adibidez, entrenatzaile taldeak jokalariei prestatutako hamabost minutuko bideoa, argazki eta animo mezuekin. Neurketari are indar gehiagoz ekiteko *bitamina* ezin hobea. Bideo horretan agertzen ziren baita ere garai batean Añorgan jokatu eta gaur egun Realean ari direnak, Iraia Iparragirre herritarra tartean. Donostiarrak entrenatzen hasi dira honezkerok; bigarren lan astea dute hau.


ZORION AGURRAK



Aiur
Zorionak maitia!! Pitxin, 6 urte dagoeneko!!! Zein azkar hazi zaren, nahiz eta zu beti nire "bixikin" izango zaren, nire mutil polita. Pila maite zaitut, amatxo. Zorionak Aiur!! Ederki igaro dezazula eguna, asko maite zaitut eta haserretzen bagara ere, munduko nebarik hobereana zara!! Zorionak Aiur!!! Zein handia egin zaren... Nire txipirol gogokoena zara. Azko maite zaitut, Javi.



Ekhi
Zorionak gure etxeko eguzkitxoari! Segi zure irribarre nabarmenarekin gure bizitzak alaitzen! Oso harro gaude zutaz eta infinito maite zaitugu: Nahia, Aitatxo eta Amatxo!




Haritz
Zorionak Haritz! Elkarrekin eguna ospatzeko gogokin, muxu potolo-potoloak etxeko partetik!




Olaia Nora Enaitz eta Nahiane Zorionak Enaitz, Nahiane, Olaia eta Nora. Oso ondo pasa!! Muxu asko Odei eta Urkoren partetik.

EGURALDIA LASARTE-ORIAN


Osteguna, 30




Ostirala, 31




Larunbata, 1




Igandea, 2




Astelehena, 3




Asteartea, 4



Asteazkena, 5



Osteguna, 6



JAIOTAKOAK

Ihintza Lizarraga Iriondo. Uztailaren 27an.

Lur Bergara Sanchez. Uztailaren 27an.

Aimar Alonso De Souza. Uztailaren 27an.

HILDAKOAK

Isabel Clemente Medina. Uztailaren 27an.

Marciano Garcia Garcia. Uztailaren 26an.

Miguel Ángel Martín Azcona. Uztailaren 26an.

Paquita Castillo Castro. Uztailaren 25ean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTEGUNA, 30 URBISTONDO

OSTIRALA, 31 ACHA-ORBEA

LARUNBATA, 1 ACHA-ORBEA

IGANDEA, 2 ACHA-ORBEA

ASTELEHENA, 3 GANDARIAS-URIBE

ASTEARTEA, 4 DE ORUE

AZTEAZKENA, 5 DE MIGUEL

OSTEGUNA, 6 ACHA-ORBEA

OSTIRALA, 7 GIL

LARUNBATA, 8 DE ORUE

IGANDEA, 9 DE ORUE

EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-12:00

DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52

ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49

DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51

LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74

GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29

URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67

GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00

Urrutia-Martin: Etxeberri auzoa 1 (Florida auzoa), Hernani/ 943 55 77 38

Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia

eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira.

Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera (www.cofgipuzkoa.com).

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK:

ERREGISTROA: 943 371 629

EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184

KIROLDEGIA: 943 376 182

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 9

43 376 181

GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179

KIUB: 943 361 605

UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621

MUNTERI AEK: 607 625 233

LARRIALDIKO TELEFONOAK:

OSASUN ZENTROA: 943 007 960

DYA: 943 464 622

GURUTZE GORRIA: 943 363 953

UDALTZAINAK: 943 362 442

ERTZAINZA: 943 538 840

SOS DEIAK: 112

SUDOKUA

5	8	9	7		6	1
4	7					3
	3		6			7
3					5	
	5	4	7	6		
	2	8	4	5		7
7			9			1
			2	5	7	6
2			6		8	

OHARRAK

Udako ordutegia kirol instalazioetan

Lasarte-Oriako Udalarenak diren instalazioak ez dira itxita egongo udan zehar, aurten ez baitute geldialdi teknikorik egingo azpiegituren mantenurako. "Pandemiaren ondorioz instalazioak jendearentzat itxita egon diren bitartean, Udaleko Kirol Zerbitzuko langileek geldialdi teknikoetan egiten diren lanak aurreratu dituzte: igerilekuko instalazioak hustu, garbitu eta desinfektatzea, baita legionella prebenitzeko protokoloari dagozkionak ere", azaldu du udalak.

Hori kontuan hartuta, uztailaren 1etik abuztuaren 31ra bitarteko ordutegien berri eman du udalak. Kiroldegia 07:00etatik 13:00era eta 16:00etatik 22:00etara irekiko dute, eta 09:00etatik 14:00etara larunbat eta igandeetan. Igerilekuaren ordutegia, berriz, hau izango da: 07:00etatik 12:30era eta 16:00etatik 21:30era astegunetan, eta 09:00etatik 14:00etara asteburuan.

Michelin kirol-gunea 10:00etatik 12:30era eta 17:00etatik 22:00etara zabalduko dute astelehenetik ostiralera, eta 09:00etatik 13:00era larunbat goizetan, eta arratsaldeetan itxi. Igandeetan itxi egingo dituzte instalazio horiek.

Maialen Chourraut kiroldegiko instalazioak erabiltzeko beharrezkoa da aurrez hitzordua hartzea, 943 376 182 telefonora hots eginda. Erabiltzaileek etxetik eraman beharko dituzte maskara, toaila eta kirola egiteko arropa. Makina bakoitza erabili ondotik desinfektatu egin beharko dute. Ekainaren 8tik daude zabalik udal kiroldegiko zenbait gune.

txintxarri

Hurrengo

Txintxarri paperean
irailaren 4an
argitaratuko dugu

Abuztuan zehar
ikasturteko eduki
irakurrienei buruzko
bideoak ikusi ahalko
dituzue

ESKELAK JARTZEKO

TEL: 943 37 14 48
edo TXINTXARRI erredakzioan

► Eskela Txintxarri paperean: **80 €**
► Eskela Txintxarri paperean + Txintxarri.eus-en: **90 €**

Txintxarri: doan eta euskaraz
Lasarte-Oriako etxe guztietan 943 37 14 48

AZOKA TXIKIA

LANA

ESKARIA

Lasarte-Oriako bi neska gazte gara; udaran haurrak zaintzeko prest gaude. Hurrek udaran eskolako errefortzu lanak egin nahi balituzkete ere prest egongo ginateke laguntzeko. Deitu edo bidali whatsapp bat zenbaki hauetara: 688 777 280 edo 610 325 280.

Lan bila ari naiz Lan bila nabil geriatria arloan, dokumentazio guztia eguneratuta daukat eta 15 urteko esperientzia. 690 146 067

Lan bila asteburuetarako Lan bila ari naiz, asteburuetan jarduteko, orduka. 639 740 900.

27 urteko neska euskalduna abuztuan haurrak zaintzeko prest. Esperientziaduna. Haur Hezkuntzan graduatua. Interesatuak deitu telefono honetara: 695 757 287.

Haurrak zainduko nituzke, irailetik aurrera,

ikastolara sartu bitartean. 630 682 716.

ETXEBIZITZAK

ERRENTAN

Udarako hilabeteetarako etxea alokatzen da, Punta Umbrian, Huelvan. Bi igerileku eta padel pista ditu. Garajea barne. 943 376 115/615 645 126.

Etxea partekatzeko neska baten bila gabiltza. Interesatuok jarri nirekin harremanetan, 666 320 520. (Nekane).

Etxea behar da Lasarte-Orian bizi den familia batentzat. 5 lagun dira senar emazte eta 3 seme alaba. Harremanetarako zenbakia, 661 39 62 99.

SALEROSKETAK

SALDU

Bigarren eskuko Silver Cross Surf kapazu + paseo aulkia + Maxicosia. Arina, eroso eta erraz erabilitekoa. Oso konpaktua. Paseo poltsa opari. Dena 300 euro. 646 824 466.



EROSI

Bigarren eskuko ondo dagoen bizikleta hartuko nuke 3-4 urteko ume batentzat. 687 35 50 95.

NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak soilik kobratuko dira soilik


TAMAINA BERRIA

Modulo txikia. 12 € (BEZ barne) publizitatea@ttakun.eus

TAMAINA BERRIA

Modulo handia. 20 € (BEZ barne) publizitatea@ttakun.eus 646.824466

MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

txintxarri

www.txintxarri.eus

Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 LASARTE-ORIA
G-20407557

Administraria

Nerea Garziarena.

Erredakzioa

Nerea Eizagirre, Inigo Gonzalez,
Maddi Zaldúa eta
Maitane Aldanondo.

Publizitatea

Iraiti Zatarain.

Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola,
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,
Maider Galardi, Mikel Yarza,
Nerea Segura, Lierni Rekondo eta
Aizpea Amas.

Banatazaileak

Julene Iraola, Egoitz Epelde,
Erlantz Ezeiza, Igone Mendizabal
eta Jose Lanchas.

Informatika zerbitzuak

IZT Informatika.

PUBLIZITATEA

Geltoki kalea 4 (behea)
Tel.: 943 37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@txintxarri.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua:

SS-513/94

ISSN: 1134-0053

Tirada: 8.000 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

OSTIRALA 31

LASARTE-ORIA Auzolana eta manifestazioa

10:00etatik aurrera Auzolana Elebeltzen, hausnarketa edota bestelako aisialdi mota baterako irtenbideak bilatzeko deialdia. 19:00etan Okendo plazatik manifestazioa aterako da "Krisiaren ondorioei antolakuntza, kapitala salatu" lemapean.

Elebeltzen, 10:00etan.
Okendo plazan, 19:00etan.

USURBIL Kultur Bira Dalton Anaiak taldeak kontzertua eskainiko du Elektropapo elektrotzarangako kideen proposamen akustikoa da Dalton Anaiak izeneko proiektu berria.

Aginagako Eliza Zaharraren kanpoaldea, 22:00etan.

LARUNBATA 1

HERNANI Bertso-antzerkia

Erik eta Win: Unai Muñoa eta Ander Lizarralde bertsolariak Imanol Kamio

pianoa eta eskusoinua Aitor Atxega gitarra. Sarrerak: ekitaldiak doakoak dira, baina alde zuzenetik gonbidapena eskuratu behar da Biteri kultur etxean, 09:00etik 14:00etara.

Atsegindegi plazan, 20:00etan.

ASTIGARRAGA Kontzertua

ANAI taldearen kontzertua, Sagar Kultur egitasmoaren barruan.

Astarbe sagardotegia, 22:30ean.

IGANDEA 2

USURBIL Organo kontzertua

Donostiako 81. Musika Hamabostaldiaren baitan, Organo Zikloa kontzertua. Loreto Fernandez Imaz organo jolearen eta Ainhoa Zubillaga mezzosopranoaren emanaldia izango da.

Salbatore Elizan, 20:00etan.

ASTIGARRAGA Magia

Marsel magoaren magia ikuskizuna izango da Sagar Kultur egitasmoaren barruan. Informazio gehiago eskuratzeko www.astigarraga.eus

Astarbe sagardotegia, 15:30ean.

OSTIRALA 7

USURBIL Jaialdia

Sagardoak elkartzen gaitu ekimen zikloa antolatu dute Gipuzkoako Sagardogileen Elkarrekin eta Bertsozale Elkarrekin. Musika jaialdia eta afaria. informazio gehiago: sagardoa.eus. Antolatzaileak: Gipuzkoako Sagardogileen Elkarrekin, Bertsozale Elkarrekin.

Saizar sagardotegian, 20:30ean.

LARUNBATA 8

HERNANI Kontzertua

Maria Berasarteren Lurra eta bidea kontzertua. Euskal sustraiak erakutsiko ditu, beste musika estilo batzuetan zehar egindako bidaia.

Atsegindegi plazan, 20:00etan.

IGANDEA 9

USURBIL Organo kontzertua

Donostiako 81. Musika Hamabostaldiaren baitan, Organo



HERNANI Bertso-antzerkia

Erik eta Win: Unai Muñoa eta Ander Lizarralde bertsolariak Imanol Kamio pianoa eta eskusoinua Aitor Atxega gitarra. Sarrerak: ekitaldiak doakoak dira, baina alde zuzenetik gonbidapena eskuratu behar da.

Larunbata 1 Atsegindegi plazan 20:00etan.

Zikloa kontzertua. Pablo Mezzelani (instrumentu multietnikoak), Pedro Aguinaga (biolina) eta Loreto Aramendi (órgano) hirukotearen emanaldia. Franck, Durufé, Liszt

eta Vientos y Piedras (Armenia, Bolivia, Afganistan, Argentina, Txina, eta beste hainbat lekutako pieza tradizionalak).

Salbatore Elizan, 20:00etan.

Oporretara goaz!

Hurrengo Txintxarri aldizkaria irailaren 4an kaleratuko dugu. Oharrak, zorion agurrak, gutunak... bidaltzeko:

txintxarri@txintxarri.eus • 688 68 35 10



txintxarri

LASARTE-ORIA

Arreta profesionalena, herrian bertan!

GREMIOEN GIDA 2020



Herriko GIDA KOMERTZIALA sarean ikus dezakezu
www.txintxarri.eus/gida

 Barne-Diseinua

 Iturgintza

 Igeltseritza


SUKALDEAK ETA BARNE ERABERRITZEAK

- GREMIOEN KOORDINAZIOA
- ORDENADORE BIDEZKO DISEINUA
 - AURREKONTUAK KONPROMISORIK GABE
 - HORMA-ARMAIRUAK
 - MARKA GUZTIETAKO ETXETRESNA ELEKTRIKOAK

Pintore kalea 5
Lasarte-Oria
Tel: 943 361 471
www.sugatecocinas.com

 **ILLARRETA**
ITURGINTZA
IGELTSEKITZA

- KONPONKETAK ETA ERAIKUNTZA zink, berun eta arbelean
- INSTALAZIOAK
- IGELTSEKITZA OROKORRA
- GREMIOEN KOORDINAZIOA
- ETXEBIZITZEN ETA LOKALEN BERRIKUNTZA OSOA

BULEGOA: Geltoki kalea 14, Lasarte-Oria
Tel. 943 36 31 47 eta 943 36 17 52.
TAILERRA: Oialume bidea 24, Astigarraga
info@illarreta.com

ANTONIO ARREGUI, S.L.  eraikuntza materialak
GAMMA

- ERAIKUNTZA MATERIALAK OROKORREAN
- ZERAMIKA
- SANITARIOAK
- KOMUNNEKO KONPLEMENTUAK

www.gamma.es

BILTEGI OROKORRA ERAKUSKETA
Oria Etorbidea, 6 Goikale, 2
20160 Lasarte-Oria 20160 Lasarte-Oria
Tel.: 943 36 64 73 Tel.: 943 36 59 47
aarreguisl@gmail.com Faxa: 943 36 59 47

Uraitz, s.l.
Igeltseritza Orokorra



- BARRUKO BERRIKUNTZAK
- TEILATU ETA FATXADAK ISOLATZAILEAREKIN VIPEQ F08 ETA S.A.T.E. SISTEMA
- BAINUONTZIAREN ORDEZKAPENA EGUN BATEAN
- GREMIOEN KOORDINAKETA

Tel. 693 059 392 - 943 566 640
uraitz@uraitz.com - www.uraitz.com
Bulegoa: Geltoki kalea 15, Lasarte-Oria

 Elektrizitatea

 Kristaldegia eta leihoak



- Material elektrikoa
 - Argiak
- Etxetresna elektrikoak
 - TB/HI-FI
- Instalazio elektrikoak

Kale Nagusia 39, LASARTE-ORIA
Tel. 943 36 10 80 - Tel/Faxa: 943 37 25 21
600 857 586 - www.electricidadarregui.com
tienda.electricidadarregui.com (on-line denda)



- Ispiluak
- Beira apaingarriak eta alakatuak
- Merkataritza instalazioak
- Dutxa itxidurak
- Kristalgintza orokorra



Uistin Kalea 11 (Zubieta Plaza) Lasarte-Oria
Tif.:943 36 23 52 607234522
www.cristaleriadeloria.com



- Komertzial instalazioak
 - Beira bikoitza
 - Segurtasun beirak
 - Dutxa-itxiturak eta irristailuak
 - Ispiluak
 - Barandak
 - Kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA
943 37 17 33 • 610 45 93 45
www.cristaleriaanorgatxiki.com


28. urteurrena

Mota guztietako leiho, pertsiana, manpara, toldo eta dekorazioko profesionalak zure zerbitzura

ZUBI TERMIKOAREN HAUSTURA, ALUMINIOA, PVC ETA POLIURETANOA

Kale Nagusia, 46 behea • Lasarte-Oria
Tel. 943 36 64 95 • Faxa: 943 36 52 22
ventanas_isu@hotmail.com
Pol. Ugaldea, 21 • 6 lokala, Usurbil

TXINTXARRI aldizkarian zure publizitatea agertzeko, jar zaitez gurekin harremanetan:
943 37 14 48 (106) / 646 82 44 66 | publizitatea@ttakun.eus
Hurrengo GREMIOEN GIDA irailaren 25ean kaleratuko dugu